



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

2026ko otsailaren 3ko saioa

Bi mila eta hogeita sei urteko otsailaren hiruan arratseko zazpiak eta erdietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ezin etorriak: CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, GOICOECHEA Iñaki

Ahalordeak: DACHAGUER Peio, LEKUMBERRY Xantxori

Saioko idazkaria: PERUSANSENA Elodie

Deialdiaren data: 2026ko urtarrilaren 30aa

Afixatze data: 2026ko urtarrilaren 30a

2. ERABAKIA: ESKOLARATZE FORFAITAREN EMATEA HERRIKO LURRALDETIK KANPO ESKOLARATUAK DIREN BI HAURRENTZAKO (7.5 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio 2024ko azaroaren 5eko eta 2025eko azaroaren 4ko erabakiz Herriak 2023-2024 eta 2024-2025 ikasturteetako eskolaratze forfaitaren zenbatekoak zehaztu zituela.

Zehaztu du bilkura haietan Ortzaize herritik kanpo den eskola pribatu bati eskolaratze forfai ematea erabaki zela, Ortzaizen bizi diren haurrak hartzeagatik

Frantziako Hezkuntza Kodeko L442-1 artikulua xedapenak betetzeko, haurride batzuen kasuan, herria behartua da eskolaratze forfai ordaintzera bigarren haurretik goiti, baldin eta haur horren anaia edo arreba ber ikastetxean eskolaratua baldin bada.

Auzapezak biltzarrari jakinarazi dio Seaskaren gutun bat eskuratu duela, Ortzaize herriari eskatuz Kanboko ikastolan eskolaratuak diren bi haurderentzako eskolaratze forfai emateko, haur horiek Ortzaizen bizi ziren garaiarentzat, hots 2023-2024 ikasturtea eta 704,50 euroko zenbatekoarekin.

Horiek ikusirik, Auzapezak proposatu du 704,50 euroko zenbatekoa Kanboko Ikastolari ematea, Ortzaizeko bi haurrak 2023-2024 ikasturtean hartzeagatik

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

ERABAKI DU, 2023-2024 ikasturterako Kanboko Ikastolari 704,50 euroko diru-laguntza ematea.

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari, gai horri buruzko agiri oro izenpetzeko eta behar diren izapideen egiteko.

Jardunean diren kideak: 15

Presente zirenak: 12

Adierazi diren bozkak: 13 (12 presente eta ahalorde 1)

ALDE: 13

KONTRA: 0

ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2026ko otsailaren 3a
Auzapeza Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,
2026ko otsailaren 5ean argitaratu edo jakinarazi ondotik
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.